Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

240 zenbakia
2022 **azaroa**

BERBETAN: **AGUEDA GAGO ARRASTIA** DEUSTUKO LIBURUDENDA

ERREPORTAJEA: **DEUSTUKO ZUBIA 1932-2022** BARKUA: **P6K BERE LEHENENGO OBRA EKOITZI DU EUSKARAZ**

TOKIKOM

36-237-238-239-240

Sustatzailea

berbaizu euskara elkartea

Babesleak

intxixu ikastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAUN TALDEA DEUSTU

DEUSTUKO IKASTOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

ELORRI BERTSO ESKOLA

eaj pnv deustu

S.D. DEUSTO

ehbildu

zirikatzen!

DEUSTUKO GAZTE ASANBLADA

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI KATEAK

Bilbao

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

BASKale

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

240 zenbakia
2022ko azaroa

aurkibidea

Jaione Ayestaran - Ibai Etxautz	**Iritzia**	4
Antxon Agirre Ibarra	**Gureak kanpoan**	5

e **erreportajea**
Deustuko Zubia 1932-2022

Apirilean egin ez genion omenaldia egin nahi izan diogu 1932. urtean Bilbora joateko tranpolin bihurtu zenari. 90 urte bete dira aurten Deustuko Zubia eraikitzeko lehen harria jarri zutenetik. Ez da gutxi.

6

Intxixu Ikastola	**Eskolak**	10
Herri lurren aurkako erasoa (II)	**Behin batean**	12
Elkargune ere izango litzatekeen pilotalekua nahi dute Erriberan	**Artikulua**	14

b **berbetan**
AGUEDA GAGO ARRASTIArekin

Euskara sustatzeko hartutako konpromisoagatik eskuratu berri du Deustuko Liburudendak 'Bilboko faboritoak, XV. merkataritza saria'. Agueda Gago Arrastiak eta bere aitak duela 17 urte egin zuten auzoan liburu-denda bat zabaltzeko hautua eta gaur egun auzoko plazan kokatuta dagoen espazioa ezinbesteko bilakatu da auzokide askorentzako.

16

Joaquin Cortadi (1986)	**Irudiak berbetan**	21

EUSKARALDIA DEUSTUN Hizkuntza ohiturak eta inertziak aldatzeko bidean

ANTZERKIA Pabilloi 6k bere lehenengo obra ekoitzi du euskara hutsean

PINTXODROMOA Erriberako 'astotxoa'

KULTUR TXOTX Danel Abando Olabarri eta Unai Foruria

barkua bete berba

24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Danel Abando, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Dafne Gonzalez, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga, Ainhoa Maiztegi.
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800

Jaione Ayestaran
Kazetaria

Déjà-vu

Aurretik bizitako zerbait berriro bizitzearen sentsazioari deritzogu *déjà-vu*. Euskarazko parekorik ez datorkit burura. *Aurretik ikusia*, akaso. Edo Berri Txarrak taldeak zioen bezala, *betiko leloaren betiko leloa*.

Formal, lehen egunez, txapa kaxoitik atera eta gaurko jakan jarri dut. Gora, behera, ezker eta eskuin, txapa gehien ikusiko zen leku estrategiko hori topatu arte. Baina antza, ez dut gehiegi asmatu. Edo beharbada, txapa jartze hutsak ez dakar inplizituki txip aldaketa bat. Ez behintzat Bilbo Handiko mediku batzuen artean.

"Ostirala. Kontsulta 11etan". Hori zioen nire agendak eta hara joan naiz. Heldu bezain pronto hurbildu zait doktorea, Ahobizi txapa soinean zuela. Antza, berak bai asmatu duela lekuarekin, nik lehenengo begi kolpean aurkitu baitut bere bata zurian. Berak, ordea, ez omen du nirea ikusi. "Buenos días" esan eta gazteleraz jarraitu du. "Egun on" esan diot nik, baina ezin diskurtsoa eten. Eta gazteleraz jarraitu du nik moztu eta "barkatu, ez al duzu nire txapa ikusi?" esan diodan arte.

Gorrituta, euskaraz hasi dugu berriro elkarrizketa. Hasieratik. Oraindik ez dakit nire txapa ez ote duen ikusi ala berea soinean zuenik ere ahaztu duen.

Gehiago, gehiagotan, gehiagorekin. Horixe orain arteko erronka. *Hitzez ekiteko garaia* omen da aurtengo ariketa.

Tira, has gaitezen, beraz, Euskaraldiaz gozatzen!

Ibai Etxautz
Sanikoa

Esku hutsik

Altxor bat agertzen den bakoitzean haren jabetzaren inguruko eztabaida hasten da. Batak, "nire lurretan dago, beraz, nirea da" dio; "nik ikusi nuen lehenengo", besteak. Bata zein bestea hegazti sarraskijaleen legez altxor horri zuku (edo odol) tanta ñimiñoena ateratzeko prest. Ez da harritzekoa, beraz, Irulegiko eskua argitara eman eta denbora gutxira, Patente eta Marken Bulegoan "sorioneku" hitza marka gisa erregistratzeko 7 eskaera egin izana. Asko dira aurkikuntza honetatik probetxua ateratzen saiatu direnak: Idunekoak, txokolatezko gailetak, oroigarriak, arropa... Saltzeko abesti komertzialak nahita egiten dituela aitortu zuen talde batek ere kanta atera du aurkikuntzaren omenez.

Dena da salgarria eta guztiak du prezioa gizarte kapitalistan; hau da, merkantzia-formak erabat ardazten ditu egun bizitzako ia alderdi gehienak, baita guztion ondare arkeologikoa ere. Esku azpiz zegoen sekretua argitara atera, eta sakela esku bete diru izateko ez dute itxaron batzuek. Guztion ondare beharko lukeena esku laburra duten horien esku.

Brontzezko eskuaren aurkian dagoena deszifratzeaz arduratu dira arkeologo, zientzialari eta hizkuntzalariak. Ifrentzuan, ordea, hasi dira idazten batzuk eurentzako etekina lortu aldera. Denek nahi dute altxorraren puxka.

“Europako bizitzaz hitz egiteko eskatzen didatenean asko harritzen naiz”

Antxon Agirre Ibarra

Jatorria: Deustu
Bizitokia: Antofagasta, Txile
Lanbidea: Majisteritza ikaslea

Testua: PREST!

Majisteritza graduko 3. mailan dago Antxon Agirre Deustuarra. Unibertsitateak antolatutako programa bati esker joan da 6 hilabetez Txilera bizitzera. Urtarrilaren 12an itzuliko da.

Zergatik joan zara Txilera?
Majisteritza graduko hirugarren mailan unibertsitateak ikasleei egonaldi bat Euskal Herritik kanpo egiteko aukera ematen die. Nik argi neukan Hego Amerika ezagutu nahi nuela eta beste ikasle batzuen esperientziak entzun ostean, Txilera etortzera erabaki nuen.

Non zaude zehazki?
Txile iparraldean bizi naiz, ni bezala majisteritza ikasten ari diren beste sei euskaldunekin batera. Antofagasta eskualdean bizi gara eta hala du izena hiriburuak ere.

Zer nolako bizitza egiten duzu bertan?
Ikasten edota unibertsitateko praktikak egiten igarotzen dut egunaren erdia. Astearte eta ostegunetan eskola publiko batera joaten naiz Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin egotera. Ez daukat eskuhartze handirik baina aukera izan dut hemengo hezkuntza publikoa ezagutzeko. Errealitate guztiz ezberdina dago hemen: irakasleen falta nabaria da eta ondorioz, gela bakoitzean 30 ikasletik gora biltzen dira.

Deustuko gazte mugimenduan ibilitakoa zara. Txilen badago gazte mugimendurik?
Bai. Ikusi eta entzun dudanaren arabera, ikasle mugimendua eta mugimendu feminista dira nabarmenenak. 2006. urtean ikasleek, ‘Pinguino Iraultza’ izeneko mobilizazioa abiatu zuten eta oihartzun handia izan zuen herrialdean. Halaber, ikasleen presentzia oso nabaria izan zen 2019ko garraio sistema publikoaren tarifaren igoeraren aurkako protestetan. Mugimendu feministak oso mobilizazio jendetsuak antolatu ditu, eta oso nabarmena da egiten duten borroka.

Irailaren hasieran konstituzio berriaren testua atzera bota zuen Txilek. Ikusten da egoera horren ondoriorik?
Mobilizazio handiagoak espero ziren arren, jendeak badaki irailean bozkatutakoa aukera historikoa zela. Hala ere, testu berri honek familia eta lagun asko polarizatzea ekarri du. Baloratzekoa da testu horrek egin duen bidea. Oso era parte-hartzailean osatu zen eta gai berri asko barnebiltzen zituen.

Orain arte ikusi izan duzun guztia kontuan hartuta. Zer da gehien harritu zaituena?
Asko harritzen naiz Europako bizitzaz hitz egiteko eskatzen didatenean. Asko dira hemendik ihes egin nahi dutenak, hots, Europako zein Estatu Batuetako bizitzarekin amesten dutenak.

Zer duzu faltan?
Zalantzarik gabe Euskal Herrian dauden aisialdirako espazioak eta ohiturak. Plazak, lagunekin poteatzea, kuadrilla ezberdinak elkartzea... Hemen dena da oso indibidualista, jendearen etxeetan edo antzeko espazio itxietan egoteko ohitura handia dago.

Bidaiatzeko asmoa daukazu?
Hiru hilabete daramatzat Hego Amerikan eta orain arte, Peru eta Bolivian egon gara, baita Atakaman ere. Deustura itzuli baino lehen Patagoniara joateko asmoa daukat, eta Argentina ezagutzeko aprobetxatuko dugu.

(1932-04-14) Deustuko zubiko lanen hasiera ofiziala. Txema Luzuriagaren bildumako argazkia, Sainz Artiach familiaren argazkia.

DEUSTUKO ZUBIA 1932-2022

Apirilean egin ez genion omenaldia egin nahi izan diogu 1932. urtean Bilbora joateko tranpolin bihurtu zenari. 90 urte bete dira aurten Ernesto Erkorekak Deustuko Zubia eraikitzeko lehen harria jarri zutenetik.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu **Irudiak:** Txema Luzuriagaren bilduma. Octavio Izaola, Sainz Artiach sendia.

Zaila da Deustuko zubiari urteurren bakar bat esleitzea. Eta hala egingo bagenu, zein izango litzateke? lanak amaitu eta zubia lehen aldiz inauguratu zenekoa? faxisten erasoaldiaren ondorioz leherrarazi zutenekoa? ala zubiak azken aldiz xaflak zabaldu zituenekoa?

Joan den apirilaren 14an, 90 urte bete ziren Ernesto Erkorekak, Bilboko alkatea zenak, Deustuko zubia eraikitzeko lehen harria jarri zuenetik. Bederatzi hamarkada hauetan, zubia birritan inauguratzen, zabaltzen eta ixten, lehertzen, eta berriz ere eraikitzen ikusi dute belaunaldi ezberdinetako hainbat deustuarrek, eta urte horiek dira erreportaje honetan bildu nahi izan ditugunak; gure auzoa osatzen duen beste elementu bat hobeto ezagutzeko bidean.

1925eko urtarrilaren 1eko anexioaz geroztik, Federico Moyuak, Deustu eta Begoña auzoen komunikazioa errazteko asmoz, itsasadarra gurutzatzeko bi zubi eraikitzeko konpromisoa hartu zuen, eta hala egitea agindu zion garai hartan udal arkitektoa zen Ricardo Bastidari (1879-1953). Urte batzuk lehenago alegia, Bastidak zubi horien beharra aurreratu zuen "Bilboko arazo urbanistikoa" deituriko hitzaldi batean.

(1932-04-14) Bilboko alkate Ernesto Erkoreka obrako ardatza kokatzeko harria paratzen.



(1933-08-24) Zubiaren eskumako zutabea zimendatzeko lanak.



(1935-02) Eskuin ibarra. Zubiaren besoa paratzen ari dira.

1926an Detroiten ospatutako kongresu batean, hiri honetako zubi mugikorrak ezagutzeko aukera izan zuen Bastidak. Deustuko zubia eraikitzeko 1920. urtean eraikitako Chicagoko Michigan etorbideko zubia hartu zuen erreferentzia gisa, hori baitzen hiriaren beharretara hobekien egokitzen zena. Hiri honetan egun, Deustuko zubiaren antza handia duten 37 zubi inguru daude.

Chicagoko Michigan etorbidean aurkitzen den zubia.

Ricardo Bastidarekin batera, Jose Ortiz de Artiñano eta Ignacio Rotaeche Velasco ingeniariak aritu ziren zubiaren diseinu eta eraikitze lanetan. Rotaechek bere aldetik, udaletxeko zubia ere egin zuen.

1931. urteko uztailaren 23an onartu zuten Deustuko zubi altxagarriaren proiektua eta hasieran esan bezala, 1932ko apirilaren 14an abiatu ziren hau eraikitzeko lanak. Garai hartan Bilboko alkatea zen Ernesto Erkoreka arduratu zen lehen harria jartzeaz, gobernadore zibilarekin, itsas komandantearekin eta portuko obren batzordeko presidenteordearekin batera.

Sociedad Naval eta Baskonia SA enpresak aritu ziren eraikuntza lanetan, eta 1936ko abenduaren 7an, altxamendu garai betean, inaugurazio xume bat egitea lortu zuten. Hala eta guztiz ere, jakina da urtebete geroago, ekainaren 18ko gauean, Euskadiko Gobernuaren Defentsa Batzordearen aginduz dinamitatu zutela, Bilboko gainerako zubiak

historiako lehen
HEDABIDE MASIBOA DA LIBURUA
GETXO
azaroak 17 - abenduak 9
Punta Begoña
AMOREBIETA-ETXANO
abenduak 19 - urtarrilak 9
Zelaieta
erakusketa
LIBURUAREN ARBOLA
Euskararen Etxea
Bizkaia
Getxo

(1937) Zubiko ezker zutabea eta besoa leherketaren ostean. Octavio Izaolak utzitako argazkia, Txema Iuzuriagaren bilduma.

bezala faxisten erasoaldiari bidea mozteko asmoz. Maria Jesus Cava Mesa historialariak idatzitako artikuluetan aipatzen da lehertu eta gutxira hasi zirela berriz zubia eraikitzen. 1939. urteko urriaren 25ean inauguratu zuten berriz, *Puente del Generalisimo* izenarekin. 1979. urtean ordea, Deustuko zubia izena ezarri zioten berriz ere.

70 segundoko maniobra

Zubia eraikitzeko erabilitako teknikei esker, soilik 70 segundo behar ziren zubia irekitzeko, Iñaki Uriarte arkitektoaren arabera. Zubiaren datuei dagokionez, 48 metroko argia dauka, hau da, euste guneen artean dagoen distantzia 48 metrokoa da. 500 metroko luzera du osotara eta itsasgoran 7,96 metroko galiboa du. Xaflek 70 graduko angelua eratzen zuten zabalik eta guztira 27 bao ditu, horietatik 11 itsasadarraren gainean. Bastidak bazekien zubi honen egitura oso aproposa zela Bilbo bezalako hiri batean. Izan ere, oinezkoei zein ibilgailuei itsasadarra gurutzatzeko aukera emateaz gain, aldi berean, Areatzara heldu behar ziren itsasontziak bertatik igaro ahal zirelako oztoporik gabe. Uribitarteko eta Abandoibarrako portu ekintza gehienak Abrara lekualdatu arte, ohikoa zen zubia egunean hamabi bat alditan zabaltzea. Horretarako, Deustuko aldean zegoen garitako makinista arduratzen zen itsasontziei bidea irekitzeaz, hauek klaxona hirutan jotzen zutenean. 1995. urtean Deustuko kaian geratzen zen azken itsasontzia irten zenean ibai-trafikoa ezerezean geratu zen. Orduan ere soilik astean behin zabaltzen zituen xaflak Deustuko zubiak. Geroztik, oso data esanguratsuetan zabaldu dute. Hala nola, 1995. urteko Aste Nagusian, 2002an eta 2008an ospatutako Deustu eta Ingeniarien arteko estropadetan.

(1934-07-04) Tarte baskulatzaileetarako makineria.

(1936) Deustuko zubia inauguratu baino lehenago. Octavio Izaolak utzitako argazkia, Txema Luzuriagaren bilduma.

Bere egitura bereziak zubia hainbat filmen eszenatoki bilakatzea ekarri du, hala nola, *Adios Pequeña*, *Rapsodia de Sangre*, *Todo por la pasta* eta *La vida nueva de Pedrito de Andia*. Era berean, Bilboko efemeride askoren lekuko ere izan da. Horien artean esanguratsuena 1984. urtean Euskalduna ontziolako langileek beren enpleguei eusteko aurrera eramandako borrokaldia izan zen. Hain zuzen ere, azaroaren 23an 38 urte bete dira protestetan parte hartzen zebilen Pablo Gonzalez Larrazabal langilea bihotzekoak jota hil zela. Zubian eraikitako erresistentzia barrikadek hiri honen historia osatzen dute.

[Esan beharrik ez dago erreportaje guzti honetan ageri diren argazkiak Txema Luzuriagaren bilduma amaigabeaz atera ditudala. Informazio guztia ere berak igorri dit, Iñaki Uriartek eta Maria Jesus Cava Mesak idatzitako artikuluak digitalizatu, sailkatu eta bildumara gehitu ostean.]

(1940) Gerraren eta leherketaren osteko argazkia. Guda-itsasontzibat atoiontzi batek lagunduta. Octavio Izaolak utzitako argazkia.

GAU BELTZA INTXIXU IKASTOLAN

Testua eta argazkiak: Intxixu Ikastola



Argitxo trapu zaharrak jantzita.

Ezagun-ezaguna izan dugu ingeles arloan askotan landu eta hainbat saltokik urtetan bultzatu duten Halloween jaia, baina Euskal Herrian zer ospatzen zen udazkenaren amaiera honetan? Irlandatik eta Eskoziatik eratorritako jai hau, Ipar Amerikan bakarrik ospatu izan da?

Badirudi, garai batean, Europa osoan eta baita Euskal Herrian ere gau beltza, arimen gaua edo 'gaba baltza' izeneko jaiak oso zabalduta zeudela. Gehienetan nekazarien uzta amaiera eta udazkenaren etorrera ospatzen omen zuten; garai hartako sinesmenetan bizidun guztien barnean, bizi-indar bat bazela pentsatzen zuten.

Euskaldun haiek 'gogoa' deitzen omen zioten bizi-indar horri. Gorputza hiltzen zenean, gogoa libratzen zen eta beste bizidun baten barruan sartzeko asmoz, bueltaka ibiltzen zen. Pertsona guzti-guztiek barruan zeramaten bizi-indar hori.

Pertsona bat hiltzen zenean, besteengana pasatzen zela uste zen (badirudi erleek lan horretan laguntzen zigutela) eta horregatik janzten ziren arropa edo trapu zaharrekin, espiritu txarrak uxatzeko eta gogo onak jasotzen laguntzeko. Antza denez, espiritu gaiztoengandik babesteko janzten ziren arropa zaharrez. Horrela jantzita, ezagutuko ez zituztelakoan eta minik ez jasotzeko, noski.

Ikastolako ortua.

Uda luze eta gozoaren ostean, udazkena erabiltzen zen negu hotz eta gogorrerako prestatzeko eta gure aurrekoen arima edo gogo ona etxeko berora ekartzeko baliatu nahi zuten gau beltza.

Euskaltzaleen Topaguneak webgune batean bildu ditu ohitura zahar honi buruzko hainbat kontu: http://gaubeltza.eus/

Intxixu ikastolan gau beltza ezagutzeko eta ospatzeko ahalegina egiten ari gara azken urteotan, euskaldunon ohitura zaharrak ez daitezen betiko galdu (betiere, ohitura gano-razkoak badira eta egungo garaietara moldatuz, noski). Batez ere Haur Hezkuntzan aritzen dira horren inguruko irudi, abesti eta bestelakoak lantzen eta gehienbat kontsumoa bultzatzen duten jaiengandik apur bat ihes egiten saiatzen.

Kalabazak egiten.

Argazkiotan ikastetxeko sarreran prestatu zituzten irudi eta panelak ikusi ditzakegu; trapuzahar, ilargi, katu, saguzar, mamu eta kuiaz atonduta. Aurten guraso elkarteak ere bere ekarpena egin du ostiral arratsaldez gure jolasgunean txokolate-jana antolatuz eta gau beltzaren inguruan giro ederra sortu da.

Txokolate jana.

Gure berdegunean dugun ortuaren inguruan antolatu zen jai berezi hau; umeen marrazkiekin, kuia apainduekin eta mamuen irudikapen ezberdinekin atondu zuten ortu ingurua eta txokolatea banatu zen hurbildu ziren guztien artean. Horrela bada, negurako prest gaude. Udazkena agurtzen hasi gara eguberri garaia hurbiltzen denean, eskean edo oles-oles Olentzero kalejiretan giroa sortzeko.

GAU BELTZA, GAU BELTZA, ZATOZ ONDO PASATZERA!

GAU BELTZA; GAU BELTZA, BELDUR DENAK UXATZERA! BUUUU!

HERRI-LURREN AURKAKO ERASOA (II)

Aurreko zenbakian hizpide hartu genuen herri-lurrak denonak izateari utzi eta gutxi batzuenak izatera zelan igaro ziren. XVIII. mendean abiatu zen prozesua, baina ez zuen abiada hartu XIX. mendera arte. Artean saldu ezin zitezkeen lur-sail eta ondare hori salgai atera zen, tupustean. Aitaren baten, Deustuko herriak bere ondarea galdu zuen.

Testua: Hektor Ortega



Deustuko eliza eta inguruetako lursailak, 1778ko plano batean. Argazkia: Valladolideko Kantzelaritza-ren artxiboa.

Oso denbora gutxian guztionak zirenak gutxi batzuen eskuetara igaro ziren. Eta, teorian, legez ezin zen horrelakorik egin. Lege Zaharrean ez zegoen horretarako aukerarik. Aurreko atalean aro hartan pribatizatzaileek aurkitu zituzten zirrikituak jorratu genituen. Oraingo honetan, berriz, zirrikituak laga eta atea zabaldu zuten unea ekarriko dugu gomutara. Lege Zaharraren krisialdiak eztanda egin zuenean gertatu zen. 1808an frantses armadak Hego Euskal Herria eta Espainiako erregearen penintsulako gainerako lurraldeak mendean hartu zituenean, Baionako konstituzioa ezarri, foruak erauzi eta, besteak beste, herri-ondasunak (lurrak, eraikinak...) saltzea legezko bihurtu zuen. Legezko eta, kasik, nahitaezko. Izan ere, herriei gerra haren kostuaren zama ezarri zieten. Kontribuzioak,

armadentzako hornidurak, anoak, bagaje zerbitzuak... Herrien lepoan pisu ikaragarria paratu zuten. Eta herriok nahiago izan zuten herri-lurrak salgai ipintzea, herritarrei ez zeukaten dirutza ordainaraztea baino.

Jakina, bat-batean merkatura atera ziren zilegi-lur guzti horiei etekinik handiena baldintza onenetan zeudenek atera zieten. Batetik, erosteko ahalmena zeukatenek (merkatariek, armadaren hornitzaileek, burgesek oro har...); bestetik, herrietako kargudunek, askotan eskribauekin eta lur-neurtzaileekin elkar hartuta. Gipuzkoako abade batek geroago ezin argiago salatu zuen: "En muchos pueblos, especialmente en los pequeños, tres o cuatro Zorriprestus, Beti-Alcates, prepotentes, caciques se han hecho estos años pasados marqueses de repente, indianos sin que ninguna flota se les haya venido de la América, con lo que han usurpado, apropiado o robado de los bienes concejiles, fingiendo haberes de las villas, entendiéndose con algunos escribanos y agrimensores peores que ellos".

Deustuko salmentak, 1811n

Oraingoz ezin dugu esan Deustuan ere zorri-presturik ibili ote zen salmentekin negozioa egiten. Baina bai esan ahal dugu laster heldu zela zilegi-lurrak saltzeko presa. 1811ko ekainaren 8an Jose Hurtado alkateak txostena osatu zuen salmenten berri emateko. Idazki horren arabera, 1810eko maiatzaren 14aren eta 1811ko maiatzaren 11 bitartean 40 salmenta gauzatu zituen Deustuko Udalak eta horien bidez 100.000 estatutik gora lur saldu zuen. Alegia, 46 hektareatik gora. Alegia, Deustuko zabaleraren %10a, kasik.

Eta ez zen zabalera kontua bakarrik. Saldu, hiru motako zilegi-lurrak saldu zituzten: landak, basoak eta Deustuan ogena esaten zieten ibai ondo arlo emankorrak. Bada, landei dagokienez, eremu txikiak saldu zituzten, orotara 3.679 estatu: Tellaetxe, Basabe, Madariaga, Errondoko edo Ipirripietako landetako lursailak, besteak beste. Basoak, ostera, bi baino ez zituzten saldu, baina askotaz zabalagoak: Berrizbason 2.200 estatu eta Guardian 18.250 estatu. Beraz, landa eta oihanak salmenta guztien %25 baino gutxiago izan ziren. Gainerakoa, 75.000 estatu lur alegia, ogenak ziren, herriko lurrik oparoenetakoak. Haginkada makala!

Jose Hurtado alkateak txostenean zehaztu zuenez, salmentetako dirua metalikoan jaso zuen Deustuko Udalak. Diruaren zati bat, argitu zuen, "kontribuzioak ordaintzera" bideratu zuten. Gainerakoa, herriaren beharrizan premiakoetarako erabili zuten. Eta soberan gelditu zena (ez zuen zenbatekoa jaso) udal diruzainaren esku laga zuten.

Zorigaitzez, Deustuko zilegi-lurren pribatizazioa ez zen 1811ko ekainean eten. Gutxienez 1816 arte segitu zuten. Hurrengo atalean ahaleginduko gara argitzen Deustuko zilegi-lurrak noren mesedetan saldu zituzten 1810 eta 1816 bitartean.

ELKARGUNE ERE IZANGO LITZATEKEEN

Auzoan ekipamendu estalien beharra dagoela azpimarratu dute Deustuibarran, eta asteburuan aldarrikapena eta jai giroa uztartu zituen ekimena eraman zuten aurrera. Ingurua obraz beteta dagoen honetan, bertako bizilagunentzako azpiegiturak eskatu dizkiote udalari.

Testua: Maite Txintxurreta Agirregabiria **Argazkiak:** Deustuko Erriberako Auzo Elkartea

Umorea albo batera utzi gabe, Erriberako Jai Alai izendatu duten frontoi berriaren inaugurazio ekitaldirako gonbidapena balitz bezala zabaldu zuten asteburuko ekimenerako deialdia. Parodia horren bidez, Auzo Elkarteak luzaroan egin duen aldarrikapena zabaldu nahi izan dute: frontoi estali bat, kirola eta beste hainbat jarduera egin ahal izateko.

Bada, eguerdi partean bilduta, lagunarteko giro aparta sortu zen Deustuko Erriberako parkean, ume zein heldu, guztiak bilduta. Parrillada herrikoi baten bueltan bildu ziren, eta zuzeneko musika ere izan zuten, baita umeentzako txapa tailerra eta jolas kooperatiboak ere.

Eta, horretaz guztiaz gain, aldarrikatzen duten hori auzoan bertan irudikatu zuten sinbolikoki eta eskala txikian; izan ere, frontoi txiki bat margotu zuten parkean bertan dauden eskaileren alboan dauden bi hormatxoak aprobetxatuta. Dotore geratu zitzaien pilotalekua, eta partidatxo batzuk jokatzen ere animatu ziren auzoko txikiak, baita helduren bat edo beste ere.

Auzokideentzako azpiegitura falta salatu dute Deustuko Erriberako Auzo Elkarteko kide den Unaik azaldu duenez, pilotaleku estaliaren beharrizana ez da kontu berria, hamar urte baino gehiago baitaramatzate udalari halako instalazio bat eskatzen, “kirolaz gain, urtean zehar beste hainbat gauza egiteko: azoka txikiak, herri bazkariak… edozer gauza”.

Bada, uste dute orain dela unea eskaera hori behin betiko betetzeko. Izan ere, uholdeak saihesteko ekaitz-andelak eraikiko ditu Erriberan Bilboko Udalak, eta horrek dezenteko obra ekarriko du berekin, gaur egun inguru hartan hainbat etxebizitza egiteko martxan daudenei gehituko zaiena. Izan ere, alkateak Zorrotzaurreko Irla izendatu zuen proiektu horrek aldaketa handiak ekarriko ditu ibaiertzeko paisaian. Bada, andelak eraikitzeko lanak aprobetxatuz, saskibaloi pista estali bat egiteko asmoa azaldu die udalak, baina auzokideek berretsi dute beren lehentasuna pilotalekua izatea dela. Izan ere, egun badaude saskibaloi eta areto-futboleko kantxak auzoan, parkean bertan, estalita egon ez arren.

PILOTALEKUA NAHI DUTE ERRIBERAN



Auzo Elkarteko ordezkariak azaldu duenez, gainera, frontoi bat eginez gero hantxe bertan herritarrek areto-futbolean, saskibaloian edo beste edozertan aritzeko aukera izango lukete. Nabarmendu dute espazio estalien beharra aspalditik aldarrikatu dutela, eta duela urte gutxi lortu zutela lehenengo aldaketa: parkeko zabuei estalkia jartzea. Hori onuragarria izan arren, Unai auzokideak azaldu du ez dela nahikoa, zabuak eurak ekintzak egiteko oztopo direlako eta auzotarrentzako behar bezalako bilgune funtzioa beteko duen toki bat behar dutelako: “Hasierako aldarrikapenarekin jarraitzen dugu, hainbat jarduera egiteko balio izango duen espazio estalia izatea auzoan”.

Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da pilotalekuarena Erriberatarren aldarrikapenetako bat baino ez dela; izan ere, arestian aipatu bezala, eraldaketa sakona bizitzen ari dira azken urteotan, eta etorkizunak ekarriko duenari begira badituzte hainbat desadostasun udalarekin eta hark proposatutako Zorrotzaurreko Plana deritzonarekin. “Auzokide gutxi gara, hirurehun eta piku, eta lan hau boluntarioki egiten dugu; beraz, batzuetan ez gara iristen”; hala ere, borrokan segitzeko asmoa dutela diote, auzoa auzotarrentzako izan dadin eta bizirik jarrai dezan.

berbetan

AGUEDA GAGO ARRASTIArekin

Deustuko Liburudenda

“Lan honen alderik politena bezeroekin

Euskara sustatzeko hartutako konpromisoagatik eskuratu berri du Deustuko Liburudendak ‘Bilboko faboritoak, XV. merkataritza saria’. Agueda Gago Arrastiak eta bere aitak duela 17 urte egin zuten auzoan liburu-denda bat zabaltzeko hautua eta gaur egun auzoko plazan kokatuta dagoen espazioa ezinbesteko bilakatu da auzokide askorentzako.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu
Argazkiak: Ecuador Etxea

sortzen den harreman berezia da”

Zergatik erabaki zenuen liburu-denda zabaltzea?
Gizarte-hezkuntzako gradua amaitu nuenean, aita eta bion artean liburu-denda bat irekitzearen ideia jaio zen. Familian liburu irakurle amorratuak gara eta asko erakartzen gintuen proiektu batekin arriskatzea erabaki genuen.

Liburu-saltzaile batek irakurle amorratu izan behar du?
Ez zait buruan sartzen liburuak sagarrak balira bezala saltzea, beraz, funtsezkoa iruditzen zait liburu-denda bat duenak irakurtzeko ohitura izatea. Nire ustez, edozein proiektu martxan jartzeko ilusioa behar da, baina baita pasioa ere. Ezin dut imajinatu liburu-denda batera joatea eta bertan saltzen dabilen pertsonak irakurtzeko zaletasunik ez izatea.

Nolakoak izan ziren hasierako urteak?
Egia esan, ez zen erraza izan. Baina hasieratik auzoak oso harrera ona egin digu eta horrek guk ere gogo eta ilusio handia izatea eragin zuen.

Liburu-dendak 17 urte bete ditu, norena da meritua?
Errepikakorra badirudi ere, hasieran jarritako gogoa eta ilusioarena da nagusiki. Gainera, saiatu gara liburu-denda espazio bizia bilakatzen. Alde horretatik, meritua gurea da, baina, jakina, beti lagundu diguten bezeroena ere bai.

Liburu-denda bat baino gehiago dela aipatu duzu askotan. Zer gehiago da zure ustez?
Gure asmoa beti izan da liburuak saltzen diren leku soil bat baino zerbait gehiago sortzea, eta horretan dihardugu gaur egun ere. Elkargune bat izatea gustatzen zaigu, liburuak inolako presarik gabe ikusteko leku bat, alegia. Bestalde, uste dugu kultura sustatzeko tokia izan behar duela eta horretarako, aurkezpenak, tailerrak, ipuin kontaketak eta abar antolatzen ditugu.

Azken hamarkadan liburu digitalen sorreraz gain, online erosketak ere areagotu dira. Uste duzu liburu-saltzailearen ogibidea arriskuan dagoela?
Lehen esan dudan bezala, ez da gauza bera liburu bat edo boligrafo bat saltzea. Liburu-saltzailearen ofizioa gogorra da, baina oso atsegina ere bai. Orokorrean online erosketak arlo guztietan igo dira eta nahiko uzkur bagaude ere, gure webgunean aukera hori jarri dugu. Aukera aproposa da zein liburu erosi argi duen jendearentzako, baina aldi berean, liburu-denda bat bisitatzearen xarma galtzen da.

Nola ikusten duzu liburu-denda txikien etorkizuna?
Kezkatzen nau. Liburu-dendetako petoa ez ezik, auzoko denda txiki guztiei eragiten dien zerbait ere bada. Badirudi denda txikietan kontsumitzea militantzia bihurtu dela.

“Saiatu gara liburu-denda espazio bizia bilakatzen”

berbetan

AGUEDA GAGO ARRASTIArekin

▷▷ SAKONEAN

“Egunean egon behar dut”

Zeintzuk dira zure liburu gustukoenak?
Txikitatik asko irakurtzen dut eta nire gustuak zabalduz joan dira. Betidanik gustatu zait eleberri beltza, eta emakumeek idatzitako literatura. Liburu asko daude ia edonori gomendatzeko modukoak, eta beste batzuk, ordea, ez dira “publiko guztientzat”. Bada literatura minoritarioago bat ‘best seller’ ez dena, eta benetako artelanak daude. Baina, oro har, denetik irakurtzen dut, eta, gainera, liburu-saltzailea naizenez, egunean egon behar dut.

Nor da zure idazlerik gogokoena?
Autore asko jarraitzen ditut baina izen bat esan beharko banu, Almudena Grandes izango litzateke. Beharbada nerabezarotik jarraitu dudalako eta bere liburu guztiak irakurri ditudalako. Pena da hain gazte izanda utzi izana. Euskal Herriko idazleen artean, Karmele Jaio dut gogokoen bat.

Saltokiek ematen diete bizia auzoei, pertsianak itxita dituen auzo bat oso auzo tristea da nire ustez.

Euskararen sustapenari dagokionez, zein da euskarak Deustuko Liburu-dendan duen presentzia?
Euskarak duen presentzia handia da bereziki bezeroei esker. Ireki genuenean Deustun euskara dezente hitz egiten dela ohartu ginen. Beraz, erraza da euskarari honek duen garrantzia ematea. Gainera, euskara hain presente ez dagoen beste auzo batetik nator eta ezberdintasuna itzela da.

Euskararen sustapenaren alde egiteagatik irabazi berri duzu ‘Bilboko Faboritoak’ saria.
Sorpresa bat izan zen eta oso pozgarria da guretzako. Ez genuen irabaztea espero, baina oso sari garrantzitsua da. Behin baino gehiagotan esan dudan bezala, sari hau oso berezia da euskara gure hizkuntza delako. Harro nago irabazi izanaz.

Zein da liburu-dendara hurbiltzen den jendearen profila?
Denetarik dago, baina egia da hasieratik nabaritu genuela batez ere emakumeak direla gurera hurbiltzen direnak. Ez bakarrik erostera, baita antolatzen ditugun tailer, hitzaldi eta aurkezpenetara ere. Halaber, polita da orain gure bezero diren asko hazten ikusi izanak. Lehen gurasoekin etortzen ziren, eta orain haiek bakarrik hurbiltzen dira liburu-dendara.

Zeintzuk dira gehien saltzen diren liburuak?
Eleberriak batez ere. Horrez gain, kanpaina puntualak ditugu eta bertan eskolarako zein hizkuntza eskoletarako liburuak dira gehien saltzen direnak. Bestalde, haurrentzako liburuak ere asko saltzen dira, baina gustatuko litzaigukeena baino gutxiago. Eleberri grafikoen salmenta ere asko igo dela konturatu gara.

Liburu-saltzaileak badu bezeroengandik zerbait ikasterik?
Asko! Nik gomendatzen ditudan liburu asko lehenago beste bezero batzuek gomendatutakoak dira.
17 urtetan bezeroak eta haien gustuak ezagutzeko aukera izan dut. Lagunak diren bezeroak ditut eta liburuak ere mailegatzen dizkiogu elkarri. Uste dut lan honen alderik politena bezeroekin sortzen den harreman berezia dela.

Eta alderantziz? Gomendioak ematen dituzu?
Jende askok gomendioak eskatzen ditu eta esango nuke askotan neure burua igerilekura botatzen dudala.
Ezagutzen ditudan bezeroekin askoz ere errazagoa da, baina hala ere, dituzten gustuen inguruan galdetzen dut idea bat egiteko asmoz. Nik neure gustuak ditut, baina literatura mota guztietan egunean egoten saiatzen naiz. Asko pozten naiz nitaz galdezka etortzen direnean, "beti edo ia beti asmatzen dudalako".

Irakurtzeko zaletasuna areagotzeko formularik dagoela uste duzu?
Gai korapilatsua da. Oro har, irakurleek haurtzarotik daukate irakurtzeko ohitura. Hala ere, irakurle asko sortu dira helduaroan ere bai. Etxean eta ikastoletan egin behar den "lana" dela uste dut. Liburu batek harrapatzen bazaitu, irakurtzen jarraitu nahi izango duzu. Argi izan behar dugu irakurtzea plazer bat dela, ez ordea betebehar bat. Saririk onena norbaiti irakurtzeko grina sorraraztea da. Ez zait axola umea edo heldua den, hori lortzea ikaragarria da.

Bigarren eskuko liburuen atala ere daukazue. Nola osatzen duzue?
Liburu-denda ireki genuenean, bigarren eskuko liburuen sail bat antolatu genuen etxean genituen liburuekin. Senideek ere etxean zituzten liburuak ekarri zituzten. Bagenekien liburu horiek ez genituela berriro irakurriko eta garrantzitsua iruditzen zitzaigun bigarren bizitza bat izatea. Ordutik denbora asko igaro da, eta bezero asko etorri dira etxean zituzten liburuak ekartzera. Gaur egun beraz, bigarren eskuko liburuen sail nahiko handia osatzea lortu dugu. Liburu guztiak euro batean saltzen ditugu eta trukearekin ere funtzionatzen dugu. Adibidez, hiru liburu ekartzen badituzu, hiru eraman ditzakezu.

"Badirudi denda txikietan kontsumitzea militantzia bihurtu dela"

Deustuko XII. Pintxo Lehiaketako sariak banatu dituzte

2020 eta 2021 urteetan garaile izandako Madariaga 33 tabernak eskuratu du aurten ere Deustuko XII. Pintxo Lehiaketako garaikurra, foiez, sagar karamelizatuaz eta ahabia saltsaz lagundutako azpizun pintxo batekin. Honekin batera, Deustoarrak tabernako Itziar Lasherasek barra onenaren saria jaso du eta azkenik, urtean izandako arretarik onenaren saria Rafaela Ybarra kalean kokatuta dagoen Bolibar tabernari aitortu diote. Madariaga 33ko pintxoaren atzetik, bigarren postuan geratu da Bolibar taberna berako panga ketua eta hirugarren postuan berriz, Blas de Otero kaleko Kaliko Jack tabernako okela desurdaiztatuaz betetako fajita, ahuakate entsaladaz eta etxeko saltsaz lagundua.

Txema Luzuriagaren argazki-liburuaren berrargitalpena

Txema Luzuriagaren 'Deustuko Argazkiak: Deustuko Elizatea' eta 'Deustuko Argazkiak: Herria' liburuak salgai daude berriz ere Deustualdeko hainbat liburudendatan. Liburu bakoitzak 23 euro balio ditu eta Deustualdeko historia hobeto ezagutzeko oso aproposak dira. Deustuko Liburudendan, Guimerá Paperdendan eta Etxean Liburudendan daude eskuragai dagoeneko. 'Deustuko argazkiak: Deustuko Elizatea' Txema Luzuriagaren lehen liburua izan zen. Bertan bildu zituen Deustuarrek eta instituzioek utzitako 1925. urte arteko Deustuko elizateko argazki zaharrak. 2006. urtean berriz, Deustuko argazkiez hornitutako bigarren liburua kaleratu zuen eta bertan, anexioaren osteko argazkiak ageri dira batez ere.

Tokikomek Deustualdeko PREST! eta Uriola.eus agerkaria saritu ditu

Azaroaren 11n banatu zituzten Arantzazun (Oñati, Gipuzkoa) Tokikom Sariak. Elkartea osatzen duten hedabide guztiek jaso zuten garaikurra, izan ere, Tokikomen 10. urteurren honetan epaimahaiak erabaki du kazetaritza lanei baino, aurtengo hitzorduan proiektuei eskaintzea protagonismoa. Bertan izan ginen Prest! aldizkariko eta Uriola.eus agerkariko ordezkariak, eta gure kasuan, hirigune handietan ere hurbileko komunitateari ahotsa emateko egin dugun lana izan da nabarmendua. Guztira 120 pertsona baino gehiago bildu ginen Oñatin, gehien-gehienak Euskal Herri osoan zehar dauden tokiko komunikabideetako ordezkariak, baina baita ordezkari instituzionalak edota euskalgintzan diharduten elkarteetakoak ere.



Deustuko komisaldegi berria inauguratu dute

Azaroaren 8an Bilboko Udaltzaingoaren komisaldegi berri bat inauguratu zuten Deustuko Ballets Olaeta kalean. Gobernu Batzordeak 2021eko abenduaren 1ean eman zion oniritzia Deustuko Kanalean kokatuta dagoen 1.150 metro koadroko lonja bat 2,52 milioi euroren truke erosteari eta Udalaren arabera, hainbat motatako biktimei lehen harrera egiteko gune egoki eta independenteak izango ditu, Biktimen Ikuskaritzaren lana errazteko eta, uneoro, biktimen intimitatea zaintzeko. Alabaina, salaketak jasotzeko zerbitzua eskainiko duen arren, delitu larrienetarako erreferentzia Miribilla izango da oraindik. Esan bezala, azaroaren 8an goizez inauguratu zuten komisaldegia eta Erne eta SVPE sindikatuek bere aldetik salatu dute "egun - azaroak 20 – komisaldegiak oraindik ez duela inolako zerbitzurik ematen". Gainera, "Elkano kalean inauguratutako ertzain-etxearekin gertatu den bezala, komisaldegi honek ere aldagela huts baten funtzioa beteko duela" uste dute.



Txema Juanesek utzitako argazkia.

Urtea: 1986

Txema Luzuriaga

Joaquin Cortadi

Azkenaldian landutako Deustuko Elizateko enpresen zerrendan, ezin ditut aipatu gabe utzi lehen sektorekoak zirenak. Irudi honetan, Joaquin Cortadiren baratzezaintza eta lorezaintza eremua ikus daiteke eta haren ondoan Ibarrekolandako Mazo baserria zegoen. J.E. Delmasen arabera, Deustuko Elizatearen goikaldean bizi zen biztanleria gehiena nekazaria zen, eta gainera, euskaraz hitz egiten zuen. P. Madozek bestalde, elizateko lurretan barazkiak eta lekaleak nagusitzen zirela aipatu zuen, hala nola, garia, garagarra, artoa, patatak, behi-, zaldi-, eta txerri- hazkuntzarekin batera. Era berean, Teofilo Guiardek zioen Deustuko Elizateak nekazaritza eta abeltzaintza jarduera garrantzitsua izan zuela, eta besteak beste txakolin bikaina eta ospetsua nabarmentzen zela.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147 SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

uriola
uriola.eus

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zergatik da garrantzitsua indarkeria matxistaren aurkako eguna aldarrikatzea?

Olatz

Sistema honek emakumeon aurkako indarkeria darabilen bitartean, garrantzizkoa delako horren gaineko salaketa egitea.

Naia

Indarkeriak hamaika aurpegi dituela ikustarazteko kalera ateratzen jarraitu behar dugulako.

Maddi

Emakumeen aurkako indarkieriak antolatzeko.

Naiara

Beldur mezuekin amaitu eta autodefentsa feminista aldarrikatzeko.

Olatz

Gorputz askeak nahi ditugulako.

Maider

Euskal Herri feminista aldarrikatzeko.

>> EUSKARALDIA DEUSTUN

HIZKUNTZA OHITURAK ETA INERTZIAK ALDATZEKO BIDEAN

Testua: PREST!

Azaroaren 18tik abenduaren 3ra ospatu da aurtengo Euskaraldia. Hitzez ekiteko garaia lelopean, ez dira gutxi izan Deustualdean zein Euskal Herriko beste hainbat txokotan Ahobizi zein Belarriprest txapa soinean eramatera animatu diren herritarrak. Artikulu hau idazten ari garen bitartean, oraindik euskaraldian izena emateko aukera dagoen arren, baieztatu daiteke Deustun gutxienez 1160 lagunek eman dutela izena aurtengo egitasmoan. Horietatik 800 baino gehiago izan dira Ahobizi rola bete dutenak eta belarriprestak ordea, 330 baino zertxobait gehiago. San Inazion eta Elorrietan berriz, ia 560 lagun zenbatu dira dagoeneko, eta Ibarrekolandan beste 200 inguru. Aipatutako azken bi auzoetan, Ahobizi gehiago egon dira Belarriprest baino, eta generoari dagokionez, orokorrean Deustualdean, emakume gehiagok parte hartu dute erronkan gizonek baino. Ariguneen daturik oraindik ez du igorri Euskaraldiak.

Halaber, azken egunak ekintzaz beterikoak izan dira Deustualdean Berbaizu Euskara Elkartearen eta Deustualdeko Euskaraldiko Batzordearen ekimenez. Urriko zenbakian aurreratu bezala, azaroan hainbat saio izan dira San Inazion, Arangoitin, Erriberan eta Deustun euskaraldia girotzeko asmoz, eta antolatzaileen arabera, ekintzek izandako parte hartzea “apartakoa” izan da.

Urriaren 24an poteo musikatua egin zuten Deustuko kaleetatik, azaroaren 6an Deustuko Arraun taldearekin batera estropada izan zen Erribera parean eta ostean Biziahi auzogunean Uki Selektahren pintxada egon zen. Esan bezala, Deustualdeko batzordeak auzo guztiak euskaraldiko giroaz bustitzeko apustua egin du aurtengoan. Azaroaren 11n Deustuko Kantugintza taldeak girotutako txokolatada antolatu zuten Arangoitiko kaleetan zehar eta azaroaren 13an Ibarrekolandatik San Inazioraino heldu zen bizikletada, twister erraldoia eta dastaketa gastronomikoa izan ziren. Azkenik, alboko orrialdean ikus daitekeen argazkia euskaraldia hasi zen egunean atera genuen Deustuarrok Done Petri plazan.

15 eguneko erronka amaitzear dagoenean, abenduaren 2an ‘Txapa ematen jarraituko dugu!’ ekitaldia ospatuko du Berbaizu Euskara Elkarteak Done Petri plazan. Euskaraldiaren amaiera eta “datorrenaren hasiera ospatzeko” eguna izatea nahi dute eta oraindik egitaraua argitaratu ez duten arren, ekitaldira hurbilduko direnek “zer aldatu duzu azken 15 egunetan etorkizunari begira?” galderaren erantzuna ekartzea proposatu dute, “guztion artean ondorioak atera ahal izateko”.

AHOBIZI
BELARRIPREST
GEHIAGO GEHIAGO GEHIAGO
Cero emisiones
Bilbobus
DEUSTUN ERE
365 EGUN EUSKARAZ
EUSKARALDIA
Herbaizu

>> ANTZERKIA

PABILOI 6K BERE LEHENENGO OBRA EKOITZI DU EUSKARA HUTSEAN

Kontsumoaren gizarteari buruz eta neoliberalismoaren biolentziari buruz gure buruari galdetzeko obra da "Love & Money".

Testua: Andoni Lopez **Argazkiak:** Iñigo Cobo, Lucía Sáiz eta Enrique Moreno Esquibel

Pabilloi 6k urtero obra bat euskara hutsean ekoizteko konpromisoa hartu zuen aspaldi, eta konpromiso horren emaitza da Dennis Kellyren "Love & Money" antzezlanaren adaptazioa, gaztelerara inoiz itzulia izan ez dena. Pabilloi 6ko lan taldeak euskaraz zuzentzeko proposamena egin zion Cécile Marquette zuzendariari eta soilik Euskal Herrian hiru urte zeramatzan arren, Idoia Barrondoren laguntzarekin obra osoa euskaratzera ekin zioten biek.

Lan-taldeak abiarazitako bidearekin, Dennis Kellyren obra jada euskaratu dute Arriagan estreinatzeko eta azaroan zehar Deustuko Erriberako antzerki aretoko lau paretak tentsioz betetzeko. Miriam K. Martxanteri, obraren aktoreetako bati, zuzendariak egindako lanarekiko duen miresmena nabaritzen zaio, eta honek egindako lan gogorra goraipatu du.

Dennis Kelly Europan ezaguna den zuzendari eta sortzaile bat da, alabaina, Cécilek ez du ulertzen zergatik ez duen gurean beste herrialdeetan lortu duen arrakasta lortu. Hala ere, "Love & Money"-ren nondik norakoak hobeto irudikatzeko asmoz, Miriamek eta Cécilek autorearen aurkezpen txiki bat egin digute. 90. hamarkadako "In-yer-face"

izeneko mugimendu artistikoaren oinordekoa da Kelly, sortzeko eta eszenak aurkezteko modu esplizituari erreferentzia egiten diona. Kelly teatro politikoan aritua den autore garaikidea da. Bere lanean denak dauka lotura gizartearekin, baita nabaritzen ez denean ere, irakurketa politikoa antzeman daiteke. Berez, gai politikoak "In-yer-face" mugimenduaren joerekin nahasten direnean, *Love & Mone*y bezalako obrak sortzen dira: agresiboak, biolentoak... Baina ez dugu biolentzia zerbait fisikoa bezala ulertu behar. Antzezlanak sentimenduekin talka egiten du, zuzendariak eta aktoreek azaltzen duten bezala.

Obrako bi kideen hitzetan, antzezlana biolentoa da, eta ezin da kontrakoa esan, baina ez dugu aurrez-aurre ikusiko. Biolentzia hori *Love & Money*

kontakizun bat delako sentituko dugu, eta kontakizun horren ardatza egunero denok bizi behar dugun indarkeria delako. Sistema kapitalistaren bortizkeriak sorrarazten digun miseria kontatzen duen antzezlana, gizartearen erretratoa. Pertsona orok izan ahal dituen sentimenduak azaleratzen dira, eta azalarazten direnean, gure eguneroko beharrekin eta zenbait agenteen boterearekin egiten dute talka.

Ikusleak bere eguneroko bizitzan sentitu edo bizi izan dituen zenbait momentu aurkituko ditu, eta Miriam K. Martxantek esaten duen bezala: "Pertsonaiak dauden gurpil berean zaude ikusle moduan, eta gogorra da antzezlana ikusten duzun bitartean horretaz ohartaraztea". Zuzendariak, berriz, antzezlanak bikote baten istorioa kontatzen duela dio, baina hori benetan kontatu nahi den guztia kontatu ahal izateko aitzakia da soilik.

"Lan egiteko bizitzea, edo bizitzeko lan egin? Ez dut gogoratzen zein den zuzen esateko modua". Nor da biktima eta nor errudun? Antzerkian ez dugu aurkituko pertsonen arteko ankerkeria, baizik eta bizitza hutsarena, existitzeagatik jasan beharreko bortizkeria, indarkeria sistematikoa iraunarazten duen eguneroko baten zakarkeria.

Galdera hauek Cécile Marquettek planteatuko ditu bere gidaritzapearen bidez (kontakizunaren helburua ez delako erantzunak bilatzea) eta Ugaitz Alegriak, Aitor Echarte Merinok, Eneritz García Alonsok, Miriam K. Martxantek eta Aiora Sedanok gorpuztuko dituzte oholtzan. Arriaga Antzokian estreinatu dute jada eta azaroan zehar, aukera dago haien eguneroko bizitzaren krudelkeria Pabilloi 6n aurrez-aurre ikusteko. Zer geratzen ote da maitasunez, diruarekin obsesionatutako gizarte batean?

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Erriberako “astotxoa”

Ekainaren amaieran, jaiekin batera, Xandra eta Michelek Erribera Tabernaren gidaritza hartu zuten eta egur eta margo apur batekin aire berria eman diote. Astean zehar eguneko platera dute eta asteburuetan pintxo bereziak.

Prezioa: 7€

Berezitasuna: saltsak

Kontu batzuk

Ez da erreza gaur egun Erriberan taberna bat bizirik mantentzea. Hilabete gutxitan bi itxi egin dituzte: Cesar eta Begoña tabernak. Baina Xandrak eta Michelek ilusio handia jarri dute beraien proiektu berrian. Erribera Tabernan egunero, goizean goiz zabaltzen dute gosariak emateko. Kinder Kafea dastatzeko aukera duenak errepikatu egingo du, seguru. Eguerdietan, 7 euroren truke bazkaldu daiteke. Ogitartekoak ere badaude. Eta asteburuetan hurbiltzen denak, Erriberako giroaz gozatzeaz gain, agian musika zuzenean entzuteko aukera du, izan ere, hilean behin, behintzat, kontzertu bat programatzen dute.

ERRIBERA TABERNA
Deustuibarra 43

Astelehenetik ostegunera:
8:00-22:00
Asteburuetan:
10:00-00:00

Plateraren inguruan

Lehendabizi piperrak eta txanpiak frijitu egiten dira olio apur batekin. Beste alde batetik, oilasko bularkia teriyaki saltsan prestatu behar da. Guztia nahastu ondoren, taloan sartu , gainetik tipulina eta mostaza eta eztia saltsa bota eta jateko prest!

OSAGAIAK

Piper berdea
Piper gorria
Txanpiñoiak
Oilasko paparra Teriyaki saltsan
Mostaza eta eztia saltsa
Tipulina
Taloa

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

DANEL ABANDO OLABARRI
Irakurzalea

Makilak zerura

Hein handi batean, errealitatearen gaineko ezagutzak eta kontzientziak egiten gaitu gizaki. Haatik, errealitatea gainditzen duten munduak sortzea da gizakion beste ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Irudimena. Sormena. Asmaturiko unibertsoetan barna murgiltzeko gogoak bultzaturik, aldaezinezko errealitateari so egiteko bestelako modu bat: begirada magikoa.

Iragan den hilabetean zendu zen Robbie Coltrane, *Harry Potter* pelikuletan Rubeus Hagrid pertsonaia gorpuztu zuen aktore mitikoa. Bizkaieraz mintzatzen den eta ile-adats luzeak, bizar nahasia eta gorputza bezain irribarre handia duen erraldoia da Hagrid; askoren arbuioa jasotzeagatik ere, piztiak, munstroak eta, oro har, gizarte magikoak baztertzen dituen izakien adiskide leiala. Zoritxarrez, jakin badakigu gizakion bizitza arruntean heriotzak gaindiezin izaten jarraitzen duela, baita fikziozko literaturak errealitatea bihurritu eta nahieran darabilela. Alabaina, bizitzaz hausnartzeko aitzakia (eder) bat besterik ez da magia, *Harry Potter*-ek erakusten digun legez: ongiaren eta gaizkiaren arteko ezinbesteko talka, prentsak antolaturiko kanpaina zikinak, botere politikoaren gehiegikeriak, ikastetxe baten autonomia-maila... edo, sinpleki, euskal kultura gutxitua eta zapaldua izatearen ondorioz gaur egun horrelako literatur unibertsaleko maisulana euskaraz erosi ezina.

Errealitateak errealitate, ez diezaiogun sekula mundua magiaren betaurrekoekin so egiteari utzi. Are gehiago diot: ba al da euskaraz irakurtzea eta bizitzea baino gauza magikoagorik? Makilak zerura, azkeneko aldiz, bizkaieraz mintzatu eta baztertuak maite zituen erraldoiaren omenez!

UNAI FORURIA
Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Lau Urtez Behin Txapelketa

Arangurenetik jaso
dugu berri-eskukada
brontzezko esku zahar bat
omen zutela atara
inskripzioei begira
fonema eta silaba
sorioneku ulertu
euskara da, beharbada
lurpetik irten da eta
lurra du jadanik laga
lurpetik ateratzea
aukera ona ezta ba?
Irten gaitezen gu ere
gure ordua da jada
ahoan darabilgunon
artean da esku-ara.

Maiz edukitzen dugunez
erdararako joera
Euskaraldian gaude ta
lotsak kanpora atera
nahiz ta euskalduntzeraino
gogorra den ibilera
badaukagu norbanako
hautuaren atmosfera
baina kolektiboari
eragiten dion era
estrukturalki landuta
euskararen ikuskera
euskaraz bizi nahi dugu
biziko gara, gainera
Euskaraldiarekin bat
Gaztealdia aurrera!

Modu askotan esan daiteke EZ, baina modu bakarrean ulertu.

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak 25 Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 24 h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU

EMAKUNDE · Euskadi, aspaldiana, bien común · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO · araba álava foru aldundia diputación foral · Bizkaia foru aldundia diputación foral · ETORKIZUNA ORAIN Es futuro · EUDEL

DÅRÅBILBÓ

Tailerrak/bisita gidatuak/joskintza/
kirol-ekintzak/sukaldaritza/
ikuskizunak/lehiaketak...

BILBON AISIALDIA EUSKARAZ

Bilbao

www.darabilbo.eus
darabilbo@bilbao.eus
607 530 132

Berriro salgai!
¡De nuevo a la venta!



Deustua ezagutzen duzu?

¿Conoces Deusto?

Erosketa puntuak:

- Deustuko Liburudenda (Deustu)
- Etxean Liburudenda (San Inazio)
- Guimerá Paperdenda (Elorrieta)

BAKARRIK
POR SÓLO
23 €
LIBURU BAKOITZA
CADA LIBRO